

## BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

4498

*EBAZPENA, 2019ko irailaren 24koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria-rena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuaren legearen aurreproietua.*

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak dekretu-proiektu bat landu du, zeinaren bidez arautzen baita Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuaren legearen aurreproietua; proiektu hori Xedapen orokorrak lantzeari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehazten duenaren araberaren izapidetu behar da.

Aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikulua araberaren, entzunaldiaren izapidea bete behar da herritarren legezkotasunari eta interesari eragiten dieten xedapen orokorrekin, eta, xedapenen izakerak hala gomendatzen duenean, informazioa jendaurrean jarriko da.

Horrenbestez, Xedapen orokorrak lantzeari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikulua araberaren, proiektu hau jakinarazten da; horretarako, 20 egun balioduneko epea nahikoa dela uste da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hori guztia kontuan hartuta, eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko ekainaren 29ko 9/2007 Legearen 4. artikuluetan xedatuarekin bat etorritik, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean erakustea Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuaren legearen aurreproietua, hogeita egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa- ren iragarki-taulan (euskadi.eus) eta Kontsumobide-Euskal Kontsumoko Euskal Institutuan (Done Jakue hiribidea 11, 01002 Vitoria-Gasteiz).

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 24a.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria,  
MARÍA OLGA SANTAMARIA NAVARIDAS.